

TEKNOLOGIA

Gizakion sorkuntza agortzen?



DIANA FRANCO EGUREN

Adimen artifiziala gizakion eremu asko ordezkatzeko ari dela badakigu: erosotasuna, abiadura, efizientzia... Mundu kapitalista honen abiadura beharretan, gizakion ahalegina oztopo dela sinetsarazi digute. Gure, klase xumeen, egiteko eta sortzeko aukerak murrizteko erasoak leku askotatik datoz, ikusten ari garenez. Courtney C. Radsch Tech Policy. press-en *Dismantling AI Data Monopolies Before it's Too Late* artikulua irakurtzen ari nintzela, zerak eman dit arreta: modu sintetikoan sorturiko testuaren nagusitasuna %90ekoa izan daitekeela bi urtetan Interneten, eta 2028rako gizakiok on-line sorturikoa agortu daitekeela.

Google, Meta, Microsoft eta baita Elon Musken xAI-k ere, datu ugari behar dituzte euren adimen artifizialak modu sakonean entrenatzeko, eta datu horiek lortzeko, Internet azpiegituraren gehiengoaren jabe dira. Aipatu artikuluko egilea izututa dago eta ez du ikusten datu horietatik, Internet horretatik, adimen artifizialek gidaturiko mundutik kanpo existitzeko aukerarik. Gure inguruan ere, pertsona askorentzat Internet Google da. Askok ez daki beste Internet batzuk, sareak sortzeko eta erabiltzeko beste modu batzuk ere badaudela.

Internet ezagutu nuenean, pertsonen ahotsak eskura izateak erakarri ninduen. Lau korporaziok gidatutako makinaren ahotsa bilakatzen bada, ez da nik nahi dudana Interneten. Joan den astean Errenteriako Torrekuan izandako topaketan, eremu digitalean jokatzeko eta izateko bestelako moduak badaudela ulertzeko aukera eskaini ziguten: eskubide digitalak ulertu eta modu feministan babesteko zenbait ildo ere partekatu zituzten. Urteotan, munduko leku askotan beste Internet bat eraikitze eta erabiltzeko moduak sortzen ari da. Ez dut uste dugun Internet hegemonikoak gizakion sorkuntza agortuko duenik, hortik kanpo sortuko baitute. Aldiz, arazo larriena da beste Internet horietatik, feministak eta eskubide digitalak babesten dituzten horietatik kanpo geratzen direnen bizitzak prekariagoak izango direla nabarmen. ●

Mobilizazio arrazistek porrot egin dute

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Lo Que No Te Cuentan de Donosti-k 30 pertsona soilik batu zituen Easo plazan azaroaren 16an, eta haren aurkako deialdi antifaxistak 300. Bestalde, Gasteizko Errota auzoko mobilizazio arrazisten sustatzaileek auzotik irten eta Gasteiz mailako mobilizazioa deitu zuten azaroaren 12an, baina aurreko deialdietan baino are herritar gutxiago bertaratu ziren.

Aurreko asteetan hainbat mobilizazio bertan behera utzi eta gero, 16koa mantendu zuen azkenik *Lo que no te cuentan de Donosti* (LQNC) taldeak. 30 pertsona inguru besterik ez ziren batu "Hiri seguruago bat lortzearren" lelodun kontzentrazioa. Aldiz, ordu eta leku berean deitutako kontramaneifestazio antifaxistak 300 bat herritar biltzea lortu zuen.

Ertzaintzak Easo plaza zintaz itxi eta bi mobilizazioak banatu zituen, Inaxio Esnaola kazetariak *Irutxuloko Hitzan* jaso duenez, baina LQNCdren mobilizazioa bere gunetik irten eta kontramaneifestazioarekin aurrez aurre jarri zen. Tentsioak gora egin zuen, eta Ertzaintzak manifestari antifaxisten aurka egin zuen, hainbat zauritu eraginda. Ondoren LQNCdren mobilizazioa plazatik atera zuen Poliziak.

Mobilizazio arrazistaren porrota antolatzaileek onartu zuten egunean bertan Telegram eta Instagram kana-

letan zabalduzako mezuan: "Oso atsekabetuta gaude jendearen erantzunarekin. Beldurratik dela ulertzen dugu. Dena dela, haserreago gaude Ertzaintzaren jokabidearekin. Gure asmoen berri informatzen jarraituko dugu. Egunetik egunera argiago dugu zeintzuk diren benetako faxistak". Antolatzaileena ez ezik Telegram kanaleko partaideen artean ere atsekabea nabaria zen, eta baita haserre ere, besteak beste bertaratu zirenetako batzuk agertu ez izana leporatu baitzieten gainontzeko taldekideei (kontra gaur egun 2.700 partaide ditu).

Gasteizko Errota auzoan berriz, urriaren 8tik asteartero egin dituzte mobilizazio arrazistak "Delinkuentziazirik gabeko auzo seguru baten alde" lelopean. Iragan astean, ordea, jautzia ematen saiatu ziren antolatzaileak, auzo mailako mobilizaziotik hiri mailakora. "Gasteizko hiritar guztiak deitzen ditugu gure kaleei eta auzoei eragiten dien delinkuentziaren olatuaren aurkako manifestaziora", zioen kartelak. Erdigunean jarri zuten hitzordua, Bilbo plazan, zehaztuz manifestazioa Bakea eta Frantzia kaleetatik igaroko zela: hiriko kale zabalenetariakoak, manifestazio jendetsuenen ohiko ibilbidea. Baina gehienez ere, 100 baino ez ziren izango Bilbo plazara hurbildu ziren pertsonak. ●



INAXIO ESNAOLA / IRUTXULO KO HITZA